

Hizkuntzen Portfolioa ataritik ikasgelara

Justo Bereziartua

Hezkuntzaren Ikerkuntza eta Diagnosi Metodoen Saila
Euskal Herriko Unibertsitatea

GAKO-HITZAK: Hizkuntzak. Portfolio. Hizkuntzen ikaskuntza. Irakasleria

1. SARRERA

Europako Kontseiluaren ekimenez sortua, Hizkuntzen Portfolio Euro-parra hedatzen ari dela-eta gure artean gero eta ezagunago bada ere, izatez portfolioak ez dira zerbait berria. Kontzeptua aspaldikoa da; eskolatik at hainbat arlotan —arte, arkitektura, argazkigintza, finantzak— egindako lanak erakusteko erabili ohi izan da.

Hezkuntza eremuan ebaluazio tresna gisa sartu zen hasieran, proba objektiboen ezinbestekotasunari aurre eginez, ekoizkinak baliatzen dituen ebaluazio ikuspegiaren ildotik. Gaur, ebaluazioa egiteko ez ezik, ikaskuntzarako ere baliabide egokia dela ikusten da. Komunikazio honetan ikerketa-ekintzan jardunez portfolio sistema erabiltzen hasierako urratsak nola gertatu diren azaldu nahi da.

1.1 Portfolioa (Agerkaria) hezkuntzan

Agerkaria ikasleak burutu dituen lanen bilduma da, ikaste jardueren adierazgarri dena (Paulson, Paulson eta Meyer, 1991). Agerkariak ikaslearen aurrerapena, lortutako helburuak eta ezagutzak erakusten ditu, ikasleak bere ikaste jardueri eta lortutako emaitzei buruzko hausnarketa barne dela.

Agerkaria eskolan nahiz eskolatik at egindakoa erakusteko ikasleak hautatzen duen dokumentu multzo antolatu bat da, egindakoa agertzen duen curriculum (Hodges, 1998).

Dokumentu hauek guztiak pertsona bat egiten joan denaren adierazle batzuk euskarri bakar batean biltzeko jasotzen dira (Weiss, 2000)

Ikasleak berak elaboratua, Agerkaria lan-ikasbidean lortutakoaz dituen hautemateekin eta ekintza adierazleen hautuekin osatutako ekoizkin bat da. Dakienaren proba bat izateaz gain, komunikazio tresna ere bada, bizitzan eta formazio aldian zehar lortutako gaitasunak une batean aurkezteko balio duen neurrian .

Orri bakoitza lan bat egiteko gai izatearen adibide garbia da, idatzitako laburpen baten bidez informazioa aberasten delarik. Agerkaria gaur egun bi osagairen batasun bat da, prozesua eta ekoizkina (Burke, Fogarty eta Belgrad, 1994). Agerkaria ikastaldian zehar egiten joandako lanen oraingo bilduma da; garapen prozesua da Agerkaria eraginkortasunez erabiltzeko zutabe nagusienetakoa.

Agerkaria eraikitzekeo prozesuak oinarrizko 4 urrats ditu: biltzea, hautatzea, hausnartzea eta proiektatzea

- *Biltzea*. Ikasleak berak egindako zenbait lan biltzea da. Ikaste ekintzen bilakabidean prozesua ez da bukatzen lana burutu eta irakasleak azken balorazioa egiten duenean. Lanak gorde eta berrikusiz ere ikas dezaketela ulertu behar dute ikasleek (Danielson eta Abrutyn, 1997). Aurrena Agerkariaren helburua zein den erabaki behar da, zertarako erabiliko den, helburu horri begira bilduko dira eta edukiak. Eduki biltzearekin batera eduki hau antolatzekeo irizpide eta euskarriak zein izango diren ere erabaki beharra dago (Burke, Fogarty eta Belgrad, 1994).
- *Hautatzea*. Agerkarirako ikasleak, irakasle edo tutorearen laguntzarekin behar bada, lortu dituen ekoizkin onenak hartzen ditu. Hauen bidez bere lan onenei buruz dakiena adierazten du ikasleak. Hautespen irizpideak ikaste helburuekin bat etorri behar lukete eta horrela hautua egitean ebaluazioa eta irakaspena elkartzen dira. Hautatzea ikaste prozesuan zehar une bat baino gehiagotan egin daiteke
- *Hausnartzea*. Lan-ekitaldian zehar bereganantz eman dituen hobekuntza eta ipinitako helburuen lorpena ebaluatuz hausnarketa praktikan ipintzen du ikasleak irakaslearen laguntzarekin; gainera, garapen horretan ikusten diren hutsuneetaz jabetzen da. Agerkari formatzaileetan hausnarketa ikaste prozesuaren une esanguratsuetan gertatzen da, aurreko bi urratsekin bat eginez. Norberak bere lanaz hausnartzea beharrezkoa da Agerkariaren helburua jardunez ikastea bada (Barret, 2000). Hausnarketaren eta ekintzaren bidez bihurtzen dugu informazioa ezagutza. Yancey-k (1998) jarduerari buruzko hausnarketa, hausnarketa eraikitzailea eta aurkezpeneko hausnarketa bereizten ditu. Jarduneko hausnarketa berrikuspen, zuzentze eta berrantolatze prozesua da. Hausnarketa eraikitzailea ahots eta izate askotatik zera baterabildu bat garatzeko prozesua da. Eta aurkezpen hausnarketa, sortze gertaerakoen, inguruko nahiz sortzailearen hainbat aldagaiaren arteko zerikusia adieraztekeo prozesua.

- *Proiektzioa, aurrera begiratzea*. Agerkariaren eraikitze prozesuaren azken urratsa aurrera begiratzea da. Aurrera begiratzea etorkizunerako helburuak ipiniz. Ikasleek bere lanari osotasunean begiratu eta burutapenak eginez, aurrera egiteko erabakiak har ditzakete, zertan dabilen ongi ikusi, zer hobetu beharko luken argitu. Agerkaria eraikitzea egin-kizun errepikakor bat da, aldiro lortutako gaitasunak egunean ipintzen saiatuz.

1.2. Hizkuntzen Portfolio Europarra

Hizkuntzen Portfolio Europarra hizkuntzen ikaskuntza bultzatzeko eta laguntzeko egina dago. Bere xedea hauxe da: hizkuntzaren bat ikasten ari denari laguntzea ikasketa hori hobetzen eta ongi bideratzen. Era berean hizkuntzen eta kulturen ezagutzak besteri erakusteko era balio du. Portfolioan deskribatzen diren gaitasun mailak Europako Kontseiluak erabilitako erreferentzi esparrua dute oinarri.

Hizkuntzen Portfolio Europarrak hiru zati ditu: Hizkuntzen Pasaportea, Hizkuntza Biografia eta Dosierra.

1. *Hizkuntzen Pasaportea*. Hizkuntzetan izandako esperientziak eta trebetasunak jasotzen dituen bilduma laburra da; aldian-aldian eguneratu beharrekoa. Ziurtagirien berri eman daiteke bertan, eta baita autoebaluazioa egin ere.

Hizkuntzen Pasaportea, atalez atal, ondorengo gai hauei buruzko informazioa laburbiltzen du:

- *Hizkuntza-trebetasunen profila*. Erreferentzia gisa Hizkuntzen Biografiako kontrol zerrendak hartuz, autoebaluazio taula erabiltzen da profila adierazteko.
- *Hizkuntza-ikasketen eta kulturarteko esperientzien bilduma I*. Hizkuntza mintzatzen ez den lurraldeetan egindako ikasketak edota izandako erabilera jasotzen da hemen.
- *Hizkuntza-ikasketen eta kulturarteko esperientzien bilduma II*. Hizkuntza mintzatzen den lurraldeetan egindako egonaldiak.
- *Ziurtagiriak eta diplomak*.
- *EAQUALS ikastaroak*. European Association for Quality Language Services erakundeko kide diren hizkuntza eskoletan egindako ikastaroen berri emateko.
- *ALTE ziurtagiri edo diplomak*. Aurreko orriko ALTE agiriak (Association of Language Testers in Europa).

2. *Hizkuntza Biografia*. Hizkuntzak ikasten egindako ibilbidearen erregistroa da. Helburuak zehazten laguntzen du, eta hizkuntzen ikaskuntzaz eta kultura arteko esperientziez gogoeta egiten.

Hizkuntza-Biografian idatzi egiten du egileak; 4 atal ditu:

- *Nire helburuak hizkuntzak ikasterakoan.* Atal honen helburua hauxe da: hizkuntza bat ikasteko dituen arrazoiak zeintzuk diren azaltzea eta horrekin lortu nahi dena argitzea.
 - *Nire ibilbidea hizkuntzak ikasten.* Hizkuntzak ikasten izandako esperientzi guztien ikuspegi kronologikoa agertzen da. Hizkuntza-ezaguera guztien irudi argia ematea da asmoa. Informazio honetan oinarrituz betetzen dira *Hizkuntzen Pasaportean Hizkuntza ikasketen eta kulturarteko esperientzien aurkibideak.*
 - *Nire hizkuntza esperientzia eta kulturarteko esperientzia nagusiak.* Atal honetan norberegana eragina izan duten kulturarteko edozein esperientzi jasotzen du, idatziz, portfolio egileak. Esperientzia horiek hainbat eratakoak izan ohi dira: une batekoak (liburu bat irakurri izana, musika, solasaldi bat),aldi batekoak (egonaldia atzerria, bidaia, ikastaroa, lan eginkizunak) edo luzeagoak.
 - *Nire gaur eguneko lehentasunak hizkuntza-ikasketan.* Hizkuntza-ezaguerak balioetsi eta ikasketa helburuak ezartzen laguntzea da atal honen helburua. Horretarako 6 kontrol-zerrenda eskaintzen dira, Erreferentzia Marko Europarreko maila bakoitzeko bat (A1, A2, B1, B2, C1, C2). Hizkuntza-biografiako kontrol zerrenden egitekoa Pasaporteko deskribapen orokorrak xehatzea da, trebetasun adierazle bakunetan aletuz. Honek ikasketa helburuak ezartzen eta maila hautematen laguntzen du. Kontrol-zerrenda hauetan oinarriturik Hizkuntza-trebetasunen profila bete daiteke Pasaportearen.
3. *Dosierra.* Ziurtagiriak, diplomak eta norberak egindako lanen artean aukeratutakoak biltzeko lekua da. Ikasten ari den hizkuntzetan egindako lanak eta bestelako dokumentuak sar daitezke Dossierrean, gaitasunen froga gisa. Bilduma honek erakusten du nolako aurrerapena egin duen ikasleak. Dossierrean honelako erakusgarriak sar daitezke: idazlan onen adibideak, audio eta bideo grabazioak, laburpenak, gidoiak, gutunak, azterlanen deskribapenak eta emaitzak, edo egindako ikasketen deskribapenak, hizkuntza aurrerapenari buruzko hausnarketak.

Norbere ebaluazioa funtsezkoa da Hizkuntzen Portfolio Europarrean (Little, D.; Perclová, R. , 2003). Tresna honek bi eratako ebaluazioa egiteko bidea ematen du, sumatiboa eta formatzailea. Ikasleak Pasaportea betetzen ari direnean bere hizkuntza gaitasunen ebaluazio sumatiboa egiten dute; une jakin betean duten ezagutza maila aitortzen dute. Bestalde, Biografia osatuz eta Dossierrean eraiki eta berrikusiz ikuspegi formatzailearekin egiten da ebaluazioa. Autoebaluazioa, HPE-aren hezkuntza xedean hain barneratua egonik, ikaste jarduera eta gogamen haztura bihurtzen da. Autoebaluazio formatzailea, hausnarketarako ebaluazio deitu dakiokena,

ikaskuntza esperientzien artean sartzen da, eta era honetara ikasleek bere burua hobeto ezagutzen joanez ebaluazio sumatiboa ere hobeto egiteko gai izan daitezke.

1.3. Hizkuntzen gure Portfolioa

Aurreko hiru osagaietatik Dosierra da gure Portfolio eredu. Batik bat erabiliz ikasten dituzte ikasleek hizkuntzak, ekoizpen lanean tresna da hizkuntza. Little, D. eta Perclová R.-ren (2003) ikerketan ikusten denez, ekoizkinak ebaluatuz eta Portfolioa eraikiz:

- hizkuntzen ikaskuntzari buruz hausnartzen dute ikasleek eta nor bere ebaluazioa egin
- egiten dakiena ikusarazi eta helburu berriak zehaztu daitezke
- emaitzak nola erakutsi pentsatzeko balio du
- ikasleek beregain hartzen dute ikasteko ardura
- gauza berriak ikasten doaz, hizkuntza gaitasunak garatuz.

Ikaste unitateak banaka hartuta, prozesukoa baino gehiago, produktu-portfolio ereduari atxikiko gatzazkio. Egituraz eta edukiz, ikaste-portfolioa eraiki nahi genuke, lanak bildu, hausnartu eta emaitzak aurkezteko baliabide izango dena.

2. METODOA

Ikerketa hau hizkuntza arloko irakasleen prestakuntza egitaraua garatuz eraman da aurrera. Lau irakasle hartu dute parte, laurak ikastetxe batekoak¹, kanpoko asesorearen laguntzarekin: D.B.H.ko 4.mailako ingeleseko irakaslea, D.B.H.ko 4.mailako euskarakoa, D.B.H.ko 3.mailako gaztelaniakoa eta Lehen Hezkuntzako 6.mailako gaztelaniakoa.

Egitarauari 2005eko irailean eman zitzaion hasiera eta hiru ekitaldi be-reizten dira bere garabidean: atarikoa (lehenengo 3 hilabete), ondoren ikerketa-ekintzazko lehen ekitaldia (5 hilabete) eta ikerketa-ekintzan jarraipena (hurrengo ikasturteak). Komunikazio honetan lehen bi ataletako emaitza aurkezten dugu, ikasturte bateko jardunaldia.

Atariko 3 hilabeteak portfolia eraikitzearekin bat datorren irakaskuntza metodologian prestatzeko izan dira: portfolioak zer diren, zertarako erabil daitezkeen eta horiek eraikitzeko ekintzak, urratsak, zein izan ohi diren aztertzeko. Ebaluazio ereduak erkatu, ebaluazio irizpideak finkatzeko errefe-

¹ Iraurgi Ikastetxeak, hezkuntza berriztatzeko proiektuen barruan, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren onespenez dihardu.

renteak bilatu eta ikasleei aurkeztuko zaizkien lehen proiektuak (ikaste-unitateak) sortzeko garaia izan da.

Ondorengo 5 hilabeteetan izan dira berez ikerketa-ekintza saioak. Ikasleekin portfolioa erabili eta jardun ahala ikertzea izan da: eguneroko irakaskuntza-ikaskuntza jardunbideak azaldu, taldean aztertu, hobetu beharrak identifikatu eta aurrerabideak aurkitu. Ikerketa-ekintza metodologien artean Kurt Lewin-en (1946) hiru urratseko eredua jarraitu da:

- gertaera praktikoan arazoak, galdegaiak, argitu
- arazoa ebatzi bidean jartzeko edo hobetzen joateko egitekoak bilatu
- ekintza horiek aurrera eraman eta eragina balioetsi (hobetu behar berriak identifikatu).

Informazioa biltzeko teknika nagusia hamabostean behin irakasleek egindako bilerako solasaldia izan da, eta ikasle taldeekin lana egin ahala jasotako oharrak. Horiekin batera, hizkuntzetako ikaste-unitateen gidak eta portfolioa eraikitzen laguntzeko sortu den materiala ere aztergai izan da.

3. EMAITZAK

3.1. Atariko ekitaldia

Ikasleekin portfolioa erabiltzen hasi aurretik sortzen diren galdera eta eginbeharrei erantzuteko garaia da, aurrez prestatzea. Ondorengo taulan laburbiltzen dira galdera eta egitekoak batetik, eta emandako erantzun eta hartutako erabakiak ondoan.

1.Taula
Atariko ekitaldiko emaitzak

| GALDERAK | ERABAKIAK / ERANTZUNAK |
|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Zer da portfolioa? | Definizioak ikusi. Portfolioa eraikitzeke urratsak (prozedura) identifikatu. |
| Zertarako erabiliko dugu? | Portfolio sisteman ebaluazio eta ikaskuntza ekintzak bereizi |
| Zertan aldatuko da irakaskuntza metodologia? Ze irakaskuntza-eredu datorkigu ongi portfolioa ikaskuntza eta ebaluazio tresna gisa erabili ahal izateko? | Produktuak elaboratuz edo proiektu bidez ikasteko metodologia aztertu. Irakasle bakoitzak bere ikasle taldearentzat proiektu edo ekoizkinak hautatu, (2.Taula ikusi) Ikasleek erabiliko dituzten gidak sortu, (3.Taula ikusi) |
| Nolakoa izango da gure «Hizkuntzen Portfolio»? | Eredu jakin bat sortu (egitura), maila guztietarako berdina. |
| Nola egingo dugu ebaluazioa? | Ebaluatzeko berariazko probarik gabe egin. Ebaluazio formatiboa, proiektuaren garabidean eta bukaeran. Banan bana elkarrizketa egin, hausnarketa. Ebaluazio irizpideak aurrez ipini. |
| Zeinek ipintzen ditu ebaluazio irizpideak? | Hizkuntzen Portfolio Europarrean gaitasun eremuak eta mailak aztertu. Curriculum ofizialak ere aintzakotzat hartu. Gure ikaste unitateetako ekintzen eta ebaluazio irizpideen arteko zerikusia aurkitu. |

Orokorrean, ekitaldiaren emaitza nagusiak bi ildotakoak dira: Portfolioa eraikitzeke urratsak (prozedura) argitzea irakasleen artean eta eskolan ikasleekin lanean hasteko ikaste- jardueraz osatutako gidak pronto eduki-tzea.

2. Taula
Ikasleek elaboratzeko ekoizkinak (proiektuak)

| | | |
|-----------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| GAITASUN EREMUA(K) (Ulermena, Irakurmena, Elkarrizketa, Hitz egitea, Idazmena) | EKOIZKINAREN IZENA (Eginkizuna, sortutako ekoizkina, egitekoa) | PORTFOLIORAKO ERAKUSGARRIA(K) (Portfolioan, dagokion orrian sartuko den erakusgarria zertan datzan) |
| Bigarren Hezkuntza, Ingelesa | | |
| Idazmena | Decalogue of rules | Dekalogoia bera, bakoitzak erabakitako di-seinuarekin |
| Irakurmena, Idazmena | Poem calendar | Egutegiko poema bat edo orri baten kopia |
| Entzumena, Irakurmena, Idazmena | Good-bye letter / Love letter | Gutuna bera |
| Idazmena, Irakurmena | Opinion article | Artikulua bera |
| Idazmena | Poster of a music band | Posterraren kopia |
| Bigarren Hezkuntza, Gaztelania | | |
| Ulermena, Irakurketa, Idazmena | Hoja de reclamación | Erreklamazio orria, ikasleak idatzia |
| Ulermena, Irakurketa, Idazmena | Descripción de un personaje en su escenario | Egindako deskripzioa, idatzia |
| Irakurmena, Ulermena | Mapa conceptual sobre la literatura anti-gua | Kontzeptu mapa |
| Ulermena, Irakurketa, Hitz egitea | Presentación oral literatura siglo XVII, XVIII | Aurkeztutako edukia |

| GAITASUN EREMUA(K) (Ulermena, Irakurmena, Elkarrizketa, Hitz egitea, Idazmena) | EKOIZKINAREN IZENA (Eginkizuna, sortutako ekoizkina, egitekoa) | PORTFOLIORAKO ERAKUSGARRIA(K) (Portfolioan, dagokion orrian sartuko den erakusgarria zertan datzan) |
|-----------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Bigarren Hezkuntza, Euskara | | |
| Ulermena, Irakurketa, Hitz egitea | Albisteen ahozko aurkezpena | Aukeratutako albistea, landuta |
| Idazmena, Ulermena | Eskaera orrien eredu sorta (3. Taula) | Eskaera orri bat |
| Idazmena | Maitasun gutuna | Maitasun aitormena edo erantzuna |
| Elkarrizketa, Ulermena | Inkesta grabatuta | Idatzizko inkesta |
| Irakurmena, Ulermena, Idazmena | Jaiak: Idazlana argazkiz hornitua | Idazlanaren zati bat eta dagokion argazkia |
| Lehen Hezkuntza, Gaztelania | | |
| Irakurmena, Idazmena | Describiendo personas | Egindako deskripzioetako bat |
| Irakurmena, Idazmena, Hitz egitea | Redacción y exposición oral de un tema | Idazlana |
| Irakurmena, Ulermena, Hitz egitea | Recital de poemas | Poema bat eta norbere iruzkina horretaz |

3. Taula
Ikaskuntza-gida, (jarraibidearen adibidea)

| | |
|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| EUSKARA D.B.H. 4. maila | Hizkuntzen Portfolioa |
| BERARIAZKO GAITASUNAK: Eskabide orrietako atalak bereiztu. Hizkuntza errejestro formala eta informala erabili. Agurra, datak eta datu pertsonalak idatzi. Lokailuak erabili. Aditz jokatuak eta jokatu gabeak bereizi. | |
| BUKAERAKO EKOIZKINA | ARGIBIDEAK |
| Eskiera orrien eredu sorta. | — Liburuan, 92.orriko galderak |
| 1.1. Galdera batzuei eran-tzun, eskaera, erreklamazio edo kexa hitzekin zehaztasunarekin erantzun. | |
| 1.2. Eskaera bat zer den ikusi ondoren 2 eskaera eredu aztertu gelan guziti artean fotokopiak eskuan ditugula. Eskaera orria ulertzeko bi galderetara erantzun: Zer eskatzen dute? Zein dira eskaera egiteko arrazoiak? | — Atalak identifikatzeko galderak. Edukiari buruzkoak — Hizkuntza formala eta informala buruzkoak |
| 1.3. Eskaerak irakurri eta aztertu ondoren galderei idatziz erantzun | — Azalpenak irakasleak emango ditu — Perpaus motak eta aditzak erreparatu |
| 1.4. Atalak ondo bereiztu ondoren atal horiek elkarri lotuta nola daukaten aztertu eta aditzei begiratu | — Irakasleak esango du zein ariketa |
| 1.5. Perpausari, lokailuei eta aditzei buruzko ariketak egin | — Taldeka jarrita |
| 1.6. Hausnarketa: orain arte ikasitako koardernoa apuntatu gero taldeko batek denen aurrean esan dezan | — Irakasleak banatuko du orria — Isilik eta banaka, gero denen artean zuzentzeko |
| 1.7. Gaiak egina dagoen eskaera orri bat zuzendu orain arte ikasitako kontuan hartua. | — Irakasleak esango du zer eskatzeko eta zeini eskatu |
| 1.8. Hasieran erabilitako ereduak kontuan hartuz, gelako mahai lerro bakoitzeko eskaera bat idatzi | — Horretarako 18.orriko taula erabiliko dugu |
| 1.9. Idatzitako eskaerak elkaren artean trukatu eta bata besteari zuzendu | |
| 1.10. Zuzendu ondoren, berriro bakoitzak berea jaso eta garbira pasatu | |
| 1.11. Hausnarketa. Ebaluazio irizpideen taula bete | |

3.2. Ikerketa-ekintza ekitaldia

Ikasleekin portfolio sistema erabiltzeari ekin eta ikasturtea bukatu arteko jardunaldia da. Emaitzetan Agerkariaren erabilgarritasuna ikusten da batetik eta aldi berean irakaskuntza-ikaskuntza estrategietan gertatzen diren aldaketak.

Ikerketa-gune izan den ikastetxean, batez ere, eredu magisteriala erabili da orain arte hizkuntzen arloan, eta erabat testu liburuei lotua. Ebaluazioa hiruhilekoaren bukaerako berariazko proba idatzian lortutako kalifikazioak izan du balio gehiena.

Agerkari sisteman, Dossierrari eman zaion garrantziagatik, hizkuntza erabiliz ikasleak sortu dituen ekoizkinak dira ikaskuntzaren ardatza. Ekoizkinak proiektuen emaitza dira, eta zentzua ematen diote ikaste-ekintza multzo bati. Ikaste-ekintzetan oreka bilatu nahi da hizkuntza gaitasunen artean, ikasturtean zehar Hizkuntzen Portfolio Europarrean aurkezten diren gaitasun eremu guztiak hartzen direla bermatu asmoz.

Proiektua gauzatzeko ekintzen jarraibidea idatziz ematen zaie ikasleei; badira banaka egin beharreko zereginak eta baita taldeak egitekoak ere. Ikasle guztiak ez doaz beti batera, erritmo desberdina eraman dezakete. Erabat aldatzen da orduan irakaslearen lana egiteko modua ere. Bere mahaitik edo arbelean jardutea gutxitu eta ikasleen artean ibiltzen da orain askoz gehiago. Ikasleei egitasmoa aurkeztu eta ondoren barauiek erantzukizuna hartzen joateko saioak dira. Honela adiarazi dituzte ikasleek aldaketarik adierazgarrienak:

- «eguneroko lanetan laguntzen digu (irakasleak)», «zer zuzendu behar dugun esaten digu»
- «talde lanak proposatzen ditu»
- «hitz egiteko jarduerak ere proposatzen ditu»
- «irakasleak lan gutxiago egin behar du, zer egin behar dugun eske-man jartzen duelako»
- «eguneroko lana garrantzitsua da»
- «(irakasleak) bakoitzaren lana ebaluatu behar du», «hausnarketa egiten dugu elkarrekin»

Laneko gidarekin batera ebaluazio irizpideak ere eskuratzen zaizkio ikasleari. Ebaluazioa ikasleek eta irakasleek egiten dute, bakoitzak bere aldetik eta baita elkarrekin ere. Berariaz bukaerako ebaluazioa egiteko probarik gabe ipintzen da ikasturtearen bukaeran kalifikazioa. Agerkariaren eraikuntzan ebaluazio saioak hausnartze ekintzak dira. Norbere jarduera eta bilakaera aztertzen da eta balioetsi. Hausnarketa egiteko banan bana elkarriketa egitea zen hasieran asmoa. Ikasle kopurua dela eta, taldeka egin behar izan dira.

Ondorengo taulan (4.Taula) bildu dira, hurrenez hurren, sortutako arazoak eta emandako erantzunak.

4. Taula

2.ekitaldiko emaitzak. Portfolioa erabili ahala

| GALDERA/ARAZOA | ERANTZUNA/ERABAKIA | BERRIKUSPENA/BALIOSPENA |
|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>1.1. Lehenengo ikaste-unitatearekin ikasle denak batera hasi dira, baina batzuk gehiago aurreratzen dute besteek baino.</p> <p>— Ikasleek etengabe galdetzen dute «zer egin behar da?»</p> | <p>1.2. Ikaste-unitatean ikasle guztiak egin behariko dutenaz gain, jarraitzeko jarduerak erantsiko ditugu.</p> <p>Jarduera osagarriak presta daitezke.</p> <p>Etxean ere lana egiteko proposa dezakegu.</p> <p>— Gida didaktikoan jarduerak argi adierazten saiatu behar dugu.</p> <p>— Hasieran denok batera begiratuko diogu gidarriari, irakurri eta orokorrean egitekoa zertan datzan ulertu.</p> <p>Lan saioari ekin eta aurrera egiteko gida eskura edukitzean ohitu behar dira ikasleak, bere kasa saiarazi.</p> | <p>1.3. Ahal dela, denek gutxieneko bat egin arte jarraitzen dugu proiektuan.</p> <p>— Batzuetan tarteko ariketaren bat falta da.</p> <p>— Ikasleek irakaslearekiko gero eta mendekotasun gutxiago dute, gida orria irakurtzea ezinbestekoa dela ikusten dute. Irakasleak behar den une guztietan laguntzen die, banaka nahiz taldeka.</p> |
| <p>2.1. Hausnarketa saioetan zer esan ez dakigula gelditzen gara.</p> <p>— Ez gara iristen hausnarketa elkarrizketa ikasleekin banan bana egitera, asko dira.</p> | <p>2.2. Galdera multzoa prestatu elkarrizketa modura egiteko.</p> <p>— Elkarrizketara egindako lan guztia ekartzeko eskatu.</p> <p>— Talde osoarekin egin daiteke, denbora hartuta, 4 ordu inguru hiruhilekoaren bukaera aldera eta saio laburragoak ikaste-proiektuan zehar. Hala ere, ahal dela banaka egiten saiatzen gara, batzuekin bederen.</p> | <p>2.3. Egindako lanak aurrean direla errazago hitz egiten dute ikasleek bere jardueraz eta emaitzaz.</p> <p>— Lagundu egin behar zaie hausnartzen.</p> <p>— Hausnarketan jardueraren deskribapenak edo balioespeneak egin ohi dituzte. Ez dugu lortzen sormen hausnarketarik, aldakuntza edo ekarpen berririk ikasleen aldetik.</p> <p>— Ekintzen gida-orriak asko laguntzen du jardueraren hausnarketa egiten. Norik bere erabatuioa egiteko, irizpideak ulertzeko moduan ipini behar dira.</p> |

| GALDERA/ARAZOA | ERANTZUNA/ERABAKIA | BERRIKUSPENA/BALIOSPENA |
|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <p>3.1. Ebaluazio irizpideak ez ditugu garbi eta nahiko zehaztuak.</p> <p>—Hiru hilabetero gurasoei ebaluazioaren emaitzen berri eman behar zaie, nola?</p> | <p>3.2. Hizkuntzen Portfolio Europarrean gaitasunei begiratu eta hizkuntzen arloko curriculum diseinuak arakatu. Gure ikaste jarduerekin bat datozen berriazko gaitasunak eta ebaluazio irizpideak identifikatu, zerrendak egin. Geure ekarpenekin osatu. Ebaluazio irizpide horiek ikasleek ulertzeko moduan (esaldi bakunak) idatzi.</p> <p>—Kalifikaziorik ez dugu ipiniko. Ikas ekintzei lotutako berriazko gaitasunen zerrenda erabiliko dugu. Ikasleak zer egin duen eta aurrera begira zertan saiatu behar dugun bereziki adieraziko dugu.</p> | <p>3.3. Ebaluazio irizpideen zerrenda eta ikas lanen emaitzak aurrean direla ikasleak norbere ebaluazioa egiten saiatzen dira. Irizpideak ikaste-unitate bakoitzaren hasieratik ipintzea ona litzateke.</p> <p>—Gurasoek ondo hartu dute informazio orrian gaitasunen eta hobetu beharren berri jasotzea. Ikasturte bukaeran kalifikazio (nota) ipini behar dugu, nola?</p> |
| <p>4.1. Zer sartuko dute ikasleek bere Portfolioan?</p> | <p>4.2. Hausnarketa egin ondoren, portfolioak egindako lanaren erakusle izan behar du, era laburrean: jardunbidea (hiruzpalau pauso nagusiak), erakusgarria (testua, grafikoa, irudia) eta hausnarketa (idatzi).</p> <p>Ikaste-unitate (edo ekoizkin) bakoitzeko orri bat sartuko dute ikasleek portfolioan.</p> | <p>4.3. Ikasleek ulertzen dute portfolioaren aurkezpen funtzioa. Produkturik elaboratuena sartu nahi izaten dute, osorik. Dokumentu (produktu) osoa orri bat baino gehiago denean ez dakigu nola erakutsi orri batean.</p> |
| <p>5.1. Oinarrizko testu libururik ez ditugunez, nola bermatu mailaz maila hizkuntza gaitasunetan ere aurrera goazela?</p> <p>—Noiz eta nola egingo diogu lekua Hizkuntzen Pasaporteari eta Biografiari?</p> | <p>5.2. Ikaste unitateak geuk antolatzen ditugun bitartean hizkuntza arloko irakasleok elkar hartuta lan egin behar gaude. Biltzeko ordu jakinak beharko ditugu. Curriculum ofizialak erabil ditzakegu erreferentzi gisa.</p> <p>Gaitasun eremuen artean oreka bilatu behar dugu. Maitetan gora egin ahala ikaste-unitateak luzeagoak izan daitezke.</p> | <p>5.3. (Oraindik egiteko)</p> |

Orokorrean, ikerketa-ekintza jardunaldiaren bukaeran, bi multzotan jaso daitezke konklusioak: ikasleek portfolioaz egiten duten erabileraz bata, eta bigarrena, zabalago, irakaskuntza ikaskuntza estrategietan ikusi diren aldaketak.

Hizkuntzen portfolioaren erabilgarritasunaz, 5 hilabetez saiatuta, ikasle-entzat tresna baliagarria dela esan dezakegu. Portfolioaren eraikuntzan hiru urrats nagusiak jarraitzen dituzte —ekoizkinak biltzea, erakusgarriak hautatzea eta hausnartzea— nahiz eta hautespenean eta batez ere hausnarketan irakaslearen laguntza beharrezkoa izan. Hausnarketa tipoei dagokienez, hausnarketa deskriptiboa izan da guztiz, egindako lana azaldu, jardunbidea aztertu eta balioztatzea. Hausnarketa sortzailea (norbere ekarpen berriak ikaskuntza proiektuari) egiteko galderak ere eskaini zaizkien arren ikasleak ez dira iritsi.

Ikaskuntza estrategien aldaketa, oro har, ekoizkinen elaborazioan oinarritutako ikaskuntzara jauzteak izan da, jardunez ikastea. Egunez egun lana egitera behartzen ditu portfolioak. Lan-erritmoak desberdinak dira ikasleen artean, egitekoa berdina izanik ere ez doaz denak batera, eta irakaslea ere ez da ari beti denentzat. Ebaluazioan, ikasleek ere bere ebaluazioan zer esana badutela erakutsi dute. Hitz bateko balioespen orokorraz gaindi («ongi», «gaizki») hizkuntza-eduki eta gaitasun osagaiak identifikatuz egin dezakete ikaskuntzaren ebaluazioa. Aurretik eta denok ulertzeko moduan ipinitako ebaluazio irizpideak lagungarri dira horretarako. Hausnarketak eta ebaluazioak, batera, une bateko emaitzei balioa eman eta aurrera begira ikaskuntzan lehentasunak argitzen laguntzen dute.

Ikerketa egitarau honetan Hizkuntzen portfolioarekin lehen urratsak eman dira. Jarduteak eta hori berrikusteak jarraitzea garamatza; esku artean dira premiazko galde gaiak: mailaz maila gaitasunetan jarraitasunez joateko ikaste-unitateak osatu eta horiei lotura ematea, ikaste-proiektuetako edukien analisia egitea hizkuntza arloko curriculumaren irispinari begiratu eta desoreka nahiz hutsuneak hautemanez, edo baita Hizkuntzen Portfolio Europarrera hurbildu asmoz Pasaporteari eta Biografiari lekua egitea ere.

Jasotze-data: 2007/5/20

Onartze-data: 2007/11/8

Abstract

Experiences involving implanting the European Language Portfolio are increasingly common in our environment. This article describes a research-action programme, training teaching staff simultaneously,

from starting to work with the portfolio, which is developed in order to extend the use of this instrument in the area of languages. There are two phases in this first stage, which lasts a whole school year. The first, lasting 3 months, was intended to: define the portfolio as a didactic resource, design an appropriate teaching-learning methodology for the portfolio's system, programme didactic units which allow this to be built and look for reference points to establish learning evaluation criteria. During the second phase, in the following 5 months, teachers experiment with the system they have prepared in the classrooms. They act and research, presenting daily findings to the group, reflecting, identifying improvement needs and looking for possible solutions. The research group includes 3 teachers from Obligatory Secondary Education (12-16 year olds) and a teacher from the 6th year of Primary Education (11-12 year olds), accompanied by a consultant pedagogue. The main technique for compiling information was group conversation during meetings with the consultant. This oral information is complemented with marks from the teachers in their classroom work and with the didactic material which has been drawn up. At the end of the year, all students who had started to draw up their portfolio gave their opinion. Open questions and incomplete phrases were used. In order to analyse the information, we worked from two main units: a) the feasibility of the portfolio in these areas and educational levels and b) changes in the teaching-learning strategies. The conclusions, which are always partial, aim to clarify the lines of action to give the project continuity, identify specific needs and the situations and conditioning factors which limit the Plans of Action.

Keywords: Languages. Portfolio. Language learning. Teachers.

Las experiencias de implantación del Portfolio Europeo de Lenguas son cada vez más conocidas en nuestro entorno. Este artículo describe un proyecto de investigación-acción, y de formación de profesorado al mismo tiempo, de iniciación con el portafolio, y que se desarrolla con el fin de extender la utilización de este instrumento en el área de lenguas. Esta primera etapa, durante un curso escolar, consta de dos fases. La primera, de 3 meses de duración, ha estado destinada a: definir el portafolio como recurso didáctico, diseñar una metodología de enseñanza-aprendizaje acorde con sistema del portafolio, programar unidades didácticas que permiten construirlo, y a buscar referentes para establecer criterios de evaluación del aprendizaje. A lo largo de la segunda fase, 5 meses siguientes, las profesoras experimentan en las aulas el sistema que han preparado. Actúan e investigan, exponiendo en grupo lo acontecido día a día, reflexionando, identificando necesidades de mejora y buscando posibles soluciones. En el grupo de investigación participan 3 profesoras de Educación Secundaria Obligatoria y una profesora de sexto curso de Educación Primaria, acompañadas por un pedagogo asesor. La técnica prin-

cial de recogida de información ha sido la conversación grupal de las reuniones con el asesor. La información oral se complementa con notas recogidas por las profesoras en su trabajo en las aulas y con los materiales didácticos elaborados. Al final del curso se ha recogido la opinión de todas las alumnas y alumnos que han comenzado a elaborar su portafolio. Se han utilizado preguntas abiertas y frases incompletas. Para el análisis de la información partimos de dos unidades principales: a) la factibilidad del portafolio en estas áreas y niveles educativos, y b) cambios en las estrategias de enseñanza-aprendizaje. Las conclusiones, parciales en todo momento, tratan de clarificar líneas de actuación para dar continuidad al proyecto, identificar las necesidades concretas, así como las situaciones y condicionantes que limitan los planes de acción.

Palabras clave: Idiomas. Portafolio. Aprendizaje de idiomas. Profesorado.

Les expériences d'implantation du Portefeuille Européen des Langues sont de plus en plus connues autour de nous. L'article qui suit décrit un projet de recherche-action et de formation simultanée du corps professoral, d'initiation par le biais du portefeuille, ce projet se développe afin d'étendre l'utilisation de cet instrument au domaine des langues. Cette première étape, se déroulant sur une année scolaire, comprend deux phases. La première, sur 3 mois, a été destinée à : la définition du portefeuille en tant que moyen didactique, à la conception d'une méthodologie d'enseignement-apprentissage basé sur le système du portefeuille, à la programmation des unités didactiques qui permettent de l'élaborer et à la recherche des référents pour établir des critères d'évaluation de l'apprentissage. Au cours de la seconde phase, sur les 5 mois suivants, les professeurs expérimentent en classe le système qu'ils ont préparé. Ils interviennent et effectuent un travail de recherche en groupe autour de ce qui s'est passé au cours de la journée en réfléchissant, identifiant les besoins en vue d'améliorations et en recherchant de possibles solutions. 3 professeurs de l'Enseignement Secondaire Obligatoire participent au groupe de recherche ainsi qu'un professeur de sixième et un conseiller en pédagogie. Pour recueillir les informations on a utilisé la technique de l'échange en groupe lors des réunions avec le conseiller. L'information orale est complétée par des notes prises par les professeurs lors des séances de travail dans leur classe et par les outils didactiques élaborés. En fin d'année on a recueilli l'opinion de tous les élèves qui ont commencé à élaborer leur portefeuille. On a utilisé pour cela des questions ouvertes et des phrases à compléter. Pour analyser l'information, on est parti de deux unités principales: a) la faisabilité du portefeuille dans ces domaines et niveaux scolaires et b) les changements de stratégies d'enseignement-apprentissage. Les conclusions, partielles à tout moment, tentent d'éclaircir les lignes d'action pour assurer la continuité

du projet, identifier les besoins concrets ainsi que les situations et les éléments qui limitent les plans d'action.

Mots clé: Portfolio. Apprendissage des langues. Corps enseignant.

BIBLIOGRAFIA

- BARRET, H.C. (2000). Create your own electronic Portfolio. *Learning & Leading with Technology*, 27/7, 14-21.
- BURKE, K., FOGARTY, R., ETA BELGRAD, S. (1994). *The Portfolio Connection*. Arlington Heights: SkyLight Professional Development
- DANIELSON, CH.; ABRUTYN, L. (1997). *An introduction to using portfolios in the classroom*. Alexandria: Association for Supervision and Curriculum Development
- EUSKO JAURLARITZA (2003). *Hizkuntzen Portfolio Europarra*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
- HANSEN, J. (1992). Literacy portfolios: Helping students know themselves. *Educational Leadership*, 66-68.
- HODGES, D. (1998). *Portfolio. A self-learning Guide*. Barrington: Threshold
- LEWIN, K. (1946). Action-research into minority problems. *Journal of Social Issues*, 2, 34-46.
- LITTLE, D. ETA PERCLOVÁ R. (2003). *El portfolio europeo de las lenguas: Guía para profesores y formadores de profesores*. Madrid: Ministerio de Educación, Cultura y Deporte
- PAULSON, F.L.; PAULSON, P.; MEYER, C. (1991). What makes a portfolio a portfolio? *Educational Leadership*, 48, 60-63.
- VAVRUS, L. (1990). Put portfolios to the test. *Instructor*, 48-53
- WEISS, J. (2000). Le portfolio, instrument de légitimation et de formation. *Revue Française de Pédagogie*, 132, 11-22.
- YANCEY, K.B. (1998). *Reflection in the writing classroom*. Logan, U.T.: Utah State University Press.